



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

INGURUMENA

ALBOKO KARGAKO IBILGAILUEN BIDEZ ETXeko **HONDAKIN ZATIKIAK JASOTZEKO EDUKIERA** **DESBERDINEKO EDUKIONTZIAK HORNITZEKO PLEGUA**

Data: 2014-05-09

1 – Kontratuaren xedea.....	2
2 – Kontratuaren balioaren aurreikuspena, hornitzeko aurreikusitako unitateak, edukien banaketa eta zatiketak.....	2
3 – Horniduraren ezaugarri teknikoak.....	3
3.1 Hornitu beharreko edukiontzien neurriak eta ezaugarri teknikoak.....	3
3.2 Zatiki organikoa eta errefus zatikia jasotzeko edukiontzien sarrera kontrolatzeko elementuak.....	6
3.3 Hornidura entregatzeko baldintzak.....	7

1 – Kontratuaren xedea

Plegu honen arabera formalizatzen den kontratuaren xedea izango da edukiera desberdineko edukiontzia hornitzea, 2 m³ eta 3 m³ ingurukoak (gehienez +/- 200 l.), batez ere herritarrengandik datozen etxeko bateko eta besteko zatikiak jasotzeko.

2 – Kontratuaren balioaren aurreikuspena, hornitzeko aurreikusitako unitateak, edukien banaketa eta zatiketak

Kontratu honetarako aurreikusten den balioa 661.460 € da (BEZik gabe), behean zehaztutako hornigai bakoitzaren arabera banatuta.

EZARPENA	≈2 m ³		≈3 m ³		Sarrerren kontrola
	Zatiki organikoa	Errefus zatikia	Ontzi arinen zatikia	Papera-kartoia zatikia	
Berehala	113	113	165	162	226
Potentziala			79	79	

Berehala ezartzeko edukiontzat ulertzen dira kontratu honen hasieran hornitu eta instalatzea aurreikusten direnak, eta ezarpen potentzialtzat kontratuak iraun bitartean ezarri edo ez ezarri litezkeenak; kontratuak 2 urte iraungo du.

Edonola ere, kontuan hartu behar da goian zehaztutako unitateek aldaketa txikiak izan ditzaketela, bai gorantz bai beherantz.

Goian ageri den taulatik hornigai hauek ondorioztatzen dira:

- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontzia zatiki organikoa jasotzeko: 113 unitate.
- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontzia errefusa zatikia jasotzeko: 113 unitate.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontzia ontzi arinen zatikia jasotzeko: 244 unitate.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontzia paper-kartoiaren zatikia jasotzeko: 241 unitate.
- 2.000 l inguruko edukiontzien sarrerren kontrol elektronikoa eramateko unitatea: 226 unitate.
- Sarrerak kontrolatzeko elementu lagungarrien multzoa; txartela, txartelen kodetzaileak eta inprimagailuak: 11.000 txartel, 2 kodifikagailu eta inprimagailu bat, guzti hauek erabili ahal izateko softwarea barne.

Kontratuak hainbat hornigai elementu dituen arren, lizitatzailerak bakoitzak hornigai bakoitzerako eta guztietarako aurkeztu behar du bere eskaintza, zehatz-mehatz.

Halaber, edukiontzien dituzten elementuetako bakoitzerako prezioak aurkeztu beharko dira (zatiketa), lotzeko eta funtzionatzeko beharreko elementuak barne (torlojuak, profilak, engranajeak, pistoiak, etab.). Mankomunitateak kontratuan zehar edukiontzien zatiak eskatzeko eskubidea gordetzen du.

Inola ere zatiketaren prezioen batura ez da edukiontzi osoaren prezioa baino handiagoa izango.

3 – Horniduraren ezaugarri teknikoak

Ondoren hornitu beharreko elementuen ezaugarri teknikoak zein izan behar diren aipatzen da, baita hornidura egiteko baldintzak ere:

3.1 Hornitu beharreko edukiontzien neurriak eta ezaugarri teknikoak

Hornitutako materialak baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Plastikoa ez den beste materialezko edukiontziak ez dira lehiaketara onartutako.
2. Hornitu beharreko edukiontziak, ahal den heinean, RAL sistema klasikoaren kolore paleta honi egokituko zaizkio:

EDUKIONTZIA	RAL	RAL-RGB	IZENA
ZATIKI ORGANIKOA	8007	089-053-031	ORKATZ ILUNA
ONTZIAK	1016	237-255-033	SUFRE HORIA
PAPERA-KARTOIA	5005	030-045-110	SEINALE URDINA
ERREFUSA ZATIKIA	7012	078-087-084	BASALTO GRISA

Esleipendunak ezin baditu koloreak goian adierazitako paletara egokitu, ahalik eta antzik handiena duen kolorea proposatu beharko du. Mankomunitateak kolore onartu edo ez erabaki beharko du edukiontziak masiboki produzitzen hasi baino lehen.

Edukiontzi bakoitzak berari elkartutako hondakina argi identifikatzea positibo baloratuko da (hondakin zatikiari elkartutako kolorea). Edonola ere, erabiltzaileari hondakinak edukiontzi barruan sartzeko bidea ematen dion tapa edukiontzi horri zuzendutako hondakin zatikiaren kolorea izan beharko du.

3. Edukiontzia osatzen duten zati plastikoetako edozein, hau da, tapa, gorputza eta heldulekua, ahal dela material birziklatuz fabrikatuta egongo da, betiere horrek edukiontzia edo bere edozein zatiri erresistentzia eta iraunkortasun baldintzak urritu gabe, eta exijitutako RAL kolorea izango du.

4. Hornitutako edukiontzien alboko kargako edozein kamio jasotzailek egoki erabili ahal izango duela bermatuko dute, baita Mankomunitatearen garbitasun kamioiak (OMB, LMPL modelo).

Mankomunitateak horri buruz beharrezko jotzen dituen proba guztiak egingo ditu.

5. Hornitutako edukiontzien Mankomunitateak bere garaian zehazten duen logoa eramango dute.

Logo hori ageri-agerian egongo da, atzeko koloretik nabarmenduta, eta edukiontzien gorputzaren aurrealdean egongo da.

Logoaren diseinua, kokapena eta neurriak esleipendunarekin kontratua formalizatzen denean emango dira.

Logoa edukiontzien gorputzean serigrafiatuta joango da. Ez da itsatsitako logorik onartuko.

6. Diseinatzerakoan aurrekusi den erabilera kontuan hartuta, edukiontzien eta bere zatiak erresistenteak izango dira kolpe, eragile kimiko, erradiazio ultramore, zatiak manipulatzeko eta abarrekiko.

Iraunkortasun eta erresistentzia baldintza horiek bermatzeko, lizitatuzaileek egokitzen dituzten ziurtagiri guztiak aurkeztuko dituzte.

Edukiontzia suaren kontrako baldintza hobeak emango dituzten elementuen presentzia positibo baloratuko da (garra geldia egoteko).

Halaber, euriko ura barruan ez sartzeko diseinatuta egon beharko dira.

7. Tapa zehatz-mehatz egokituko zaio gorputzari.

Ilido horretan, edukiontzia osatzen duten zatien artean desorekak egotea edo lokatzea negatibo baloratuko da, baita erraz deformatu daitezkeen elementuak egotea ere, edukiontzian araz kanpoko sarbidea eman dezaketena.

8. Aurkeztutako edukiontzien sarrerak elektronikoki kontrolatzeko sistema bat instalatzeko egokigarritasuna bermatu beharko dute (hurrengo puntuan definitzen da), baita herritarrek erabiltzeko tapa bakarra ere, eta beste bat edukiontzia deskargatzeko eta garbitzeko.

Erabiltzaileentzat ezinezkoa izan behar da edukiontzia deskargatzeko eta garbitzeko tapa irekitzea, eta baloratuko da tapa honek indarrez zabaltzeko ematen dituen aukerak.

9. Edukiontzietan sartzeko ahoi dagokienez, ahal den heinean, lizitatuzaileek betekizun hauek bete beharko dituzte:

ZATIKIA	HERRITARRA AHO KOP.	AHO MOTA	SARTZEKO KONTROLA	KOMERTZIALA ATE EDO GAI NEKO TAPA ZABALA	SARRAILA
Orgabikoa	1	Tapa etzangarria	Elektronikoa	Ez	Ez
Errefusa	1	Tapa etzangarria	Elektronikoa	Ez	Ez
Ontziak	2	Zirkularra Irekia Babestua	Ez	Bai	Giltza (*)
Papera- kartoia	1	Laukizuzena Irekia Babestua	Ez	Bai	Giltza (*)

(*) Ate komertzial handian sarrera elektronikoki kontrolatzeko sistema bat egokitzeko ahalmena baloratuko da.

10. Hornidurak kalean finkatzeko elementuak integratzea positibo baloratuko da. Horien instalazioa Mankomunitatearen beraren kontu joango litzateke.

11. Proposamenak aurkeztean, lizitatzailleak edukiontzi mota bakoitzaren eskala errealeko modelo bana aurkeztu beharko du gutxienez, litro kopuru eta neurri desberdinekoak, muntatuta eta %100 operatiboa, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten proba guztiak egin ahal izan ditzaten.

Inola ere egongo dira diferentziak dimentsiotan edota deskargako ahoen kotetan eta bilketa eta garbiketa ahal bideratzen dituzten elementuen artean, hornituko diren edukiontziak eta aurkeztutako eredu artean.

Edonola ere, positibo baloratuko da aurkeztutako modelo ahalik eta gehien ajustatzea aurkeztutako proposamenean zehaztuarekin (baita sarreren kontrola ere).

Prozeduraren amaieran, lizitatzailleek aurkeztu dituzten baina hautatu ez diren edukiontziak jaso ahal izango dituzte.

Hautatutako modelo Mankomunitatean geratuko da kontratuak dirauen bitartean.

Modelo horiek Mankomunitatearen egoitzan entregatuko dira, eta bertan geratuko dira, gordailu moduan, esleipena ebatzi bitartean. Mankomunitateak konpromisoa hartzen du hautatu gabeko modelo bere instalazioetan mantentzeko gehienez ere kontratua esleitu eta hilabete batez.

Mankomunitatean utzi eta gero modeloren batek kalte nabarmena izan, galdu edo lapurtuko balitz, Mankomunitateak bere gain hartuko luke kostua.

3.2 Zatiki organikoa eta errefus zatikia jasotzeko edukiontzien sarrera kontrolatzeko elementuak

Plegu honetan oinarrituta formalizatzen duen kontratuak beharrezko elementuak izango ditu (hardwarea eta softwarea) zatiki organikoa eta errefusa jasotzeko alboko kargako edukiontzien sarrerak kontrolatzeko, 2. atalean agertzen den unitate kopuruan.

Ondoren hornitu beharreko elementuen ezaugarri teknikoak zein izan behar diren aipatzen da, baita hornidura egiteko baldintzak ere:

1. Eskatutako sistema guztiak hornitu beharreko edukiontzietan instalatuta daudela entregatuko dira.
2. Ahal den heinean, sarrerak kontrolatzeko elementuak kudeatzeko, software eta hardware tipologiarik gutxien erabiltzen saiatuko da. Softwarea euskaraz eta gaztelaniaz erabili ahal izango da.
3. Hornitutako elementuek behar besteko estankotasun indize eta babes izango dute garbitzeko zereginetan ura zuzenean turrustan botatzen denean jasateko. Gainera, edukiontzietako elementuak haiek husteko edo garbitzeko zereginetan sortzen diren kolpeakiko erresistenteak izan beharko dira.
4. Instalatutako sistemek ez dute mantentze lan espezializaturik beharko zeregin hauetan: erabiltzaileen altak eta bajak, pilak edo bateriak aldatzea, datuak jasotzea, etab. Horrenbestez, Mankomunitatearen zerbitzuei beraiei lan horiek egitea ahalbidetuko zaie. Ildo horretan, mantentze lanetarako beharrezko prestakuntza eta informazioa emango da kudeatzaile mailan eta erabiltzaile mailan, lehen adierazitako zereginak egin ahal izateko. Prestakuntzarekin batera, funtzionamenduaren eskuliburua emango da.
5. Lehiaketaren xede diren elementuen gaineko NFC protokoloak ezartzea positibo baloratuko da.
6. Horniduran hondakinak sartzeko 10.000 txartel egongo dira, alde batetik koloretan serigrafiatuta (Mankomunitateak zehaztuko ditu diseinua eta edukiak), baita txartelak eta sarraila elektronikoak birprogramatzeko softwarea eta hardwarea ere.
7. Horiez gain, beste 1.000 txartel garbi eta horiek serigrafiatzeko inprimagailu guztiz operatibo bat ere emango dira. Serigrafiatzeko lanak egiten diren bitartean sarrera txartela inprimagailutik kodetzeko aukera izatea positibo baloratuko da. Txartel horiek elementu pasiboak izango dira, inoiz ez aktiboak.
8. Mankomunitatearen beharren arabera, enpresa esleipenduna arduratuko da erabiltzaileen datu basea eta

edukiontzien sarrerako aukerak diseinatzeaz.

9. Sarraila elektronikoen sarrera kontrolak edukiontzi jakin baterako sarbidea mugatu ahal izango du, baita astean egun eta ordu jakin batzuetan ere. Sarreraren murrizketa hori sarrailatik bertatik egin ahal izango da, herritarrei eragozpenik ez sortzeko (txartelak aldatzea edo birprogramatzea).
10. Edukiontzi bakoitzaren sarreraren sistema funtzionarazteko hornidura elektrikoa edukiontzia sistemaren sistema elektronikoa bertan integratutako pila edo baterien bitartez egin ahal izango da, eta horren mantentze lanak Mankomunitateko langileek egin ahal izango dute, sofisticazio bereziko gailurik eduki behar izan gabe.
11. Sarrailako datuen bidaltze eta jasoketak kablerik gabe egingo dira eta ez da onartuko klaberik erabiltzea honetarako. Lan hauek irrati edota RFID-UHF sistemen bitartez egin ahal izatea positiboki baloratuko.
12. Esleipendunak mantentze lanetako langile mailan emango duen prestakuntzan, elementu elektronikoen horiek muntatzeko eta desmuntatzeko praktikak egingo dira edukiontzietan.

3.3 Hornidura entregatzeko baldintzak

Baldintzak:

1. Hornitutako materialaren garraioa kontratuaren prezioan sartuta dago, eta hori ez da aldatuko, ezta erregaien prezioa aldatzen bada ere, gorantz zein beherantz.
2. Mankomunitatez gain, kontratuak dirauen bitartean, esleipendunak hornitutako materialaren kontrola eramango du, baita hornitzeko falta denarena ere, eta, gertatuz gero, unitate akastunak, garraioan edo manipulatzeko esleipendunak apurtu dituenak eta abar berriko ditu.
3. Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek berriaz onartuko dute egindako entrega, egoera gainbegiratu ondoren. Edonola ere, materiala jaso eta gero, Mankomunitateari egotzi ezin dakizkikeen arrazoiengatik material akastunak detektatzen badira, esleipendunak material hori berri beharko du, Mankomunitatearentzako inolako kosturik gabe.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2014ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2014ko maiatzaren 15ean.
IDAZKARIA**